



**BIZKAIKO  
EUZKO  
GAZTEDEI**

IBAÑEZ DE  
BILBAO 16  
48001 BILBO  
EUZKADI

94.403.94.00

www.bizkaikoegi.org

info@bizkaikoegi.org

**Koordinazioa**

Bizkaiko Erki Kontseilua

**Laguntzaileak**

Borja P. Astorkia

Aitor Arregi

Irantzu Uriarte

Aldizkarian kolaboratzaile moduan aritzeko, goian jarrita dauden medioen bitartez jarri gurekin kontaktuan.

**NOR GARA**

Euzko Gaztedi, EAJren gazte erakundea da. EGik bere burua, euskaldun, demokratiko anitza, partehartzaile, humanista bezala jotzen du gizakiaren onurarako diren mugimendu guztien aldekoak gara. Gure lan-eremua gazteria izanik Euzkadi edo Euskal Herriaren subiratautsa berreskuratzea dugu helburu. Europearrak izatearekin batera bakea, tolerantzia eta Giza- eskubideei errespetua nagusi diren markoa nahi dugu.



5. zenbakia

2007ko ekaina

## nor zen... Lurgorri

EAJ eta ELAko kide zelarik, bere idazlanean - "Amayur", "Euzko Langille", "Gudari" eta "Euzkadi"n batez ere argitaratuta- gai sozial, politiko, kultural zein ekonomikoak landu zituen maisutasun bereziaz, eta horrezaz gain saiakera arloan ere bere ekarpena utzi zuen, nahiz eta argitaratu gabe geratu zen. "Lurgorri"-ren emaitza politiko eta sindikala Leintz ibarrean eta Aramaiokan hedatu zuen batik bat, aritu ahal izan tarte laburrean.

1936ko uztailaren 18an faxisten altxamendua eman bezain laster EAJ-ren zerbitzuan jarri zen Aramaiotik eta Amayur baitailoi izango zenaren lehen zeluletako bat osatu zuen, Leintz bailara eta Aramaioko gazteekin. Baina aurki, EAJ-k aginduta, gerrako korrespontsala gisa aritu zen Euzkadiko frontean zein kanpokoan ere, Astu-

riasen. Ikusgarria da zein nolako errealismo eta zintotasunarekin deskribatzen dituen fronteko jazoerak. Demokraziaren aldeko konpromisoa azkenetaraino eraman zuen "Lurgorri"-k bere idazlanen bitartez, alde horretatik ere goitasun paregabea erakutsiz.

"Lurgorri"-ren bizitza laburra, bere aberriaren ganako sentimenduen katea izan zen. Politiko, sindikalista, euskaltzale, kultura eragile, kazetari eta literatoa izan genuen. Argitaratu zuen azkeneko idazkia - hain zuzen Larrinagako presondegian ezkutuan eskuz sortzen zuten "Espetxean" aldizkaritxoan- "[[Lauaxeta]]" zenaren azken poemari buruzko glosa bat zen, "Lurgorri"-k bere gogoia ere poesiarekin lerrotzen zela adierazi nahi izan balu bezala. Eta zalantzarik gabe, Azkarraga gaztearen literatura ekarpena aztertzen badugu, bertan poetaren izpiritua antzeman daiteke alde guztietan.

## AZKENA



**361**

EGI-(Euzko Gaztedi)



5. zenbakia

2007ko ekaina

## GAUR EKAINAK 5...

EDUKIAK

1

GAUR EKAINAK  
5...

2

ESPERANZA

3

EUSKAL JAI  
PLENTZIAN

3

NOR ZEN?

4

NOR ZEN?

4

AZKENA

Aldizkari hau, Bizkaiko Erki Kontseiluak egiten dituen ekintza eta ekitaldi guztien berri emateko helburuarekin jaio da. Zuen partehartze eta iritziak garrantzitsuak dira. Kolaboratzaile moduan aritzeko jarri gurekin kontaktuan azkenengo orrialdean agertzen diren medioen bidez.



Aldizkari hau Creative Commons 2.5 lizentziarekin dago

Gaur ekainak 5 nohizbait gertatuko zela jakin arren, gertatzea nahi ez genuen berri batekin hasi dugu eguna. ETA erakunde terroristak 2006ko martxoaren 24ean iragarri zuen su-etena hautsi duela jakinarazi du. Bitartean gertatu den bake prosesuak porrot egin du eta, berriro ere, euskal gizartearen eta abertzaleen gehiengo ukaezin batekin arbuatzen duen antzinako antzu bezain kruel den estrategia gerrazalera bueltatuz. Gertaera larri honen aurrean lau gogoeta egin nahi ditu Euzko Gaztedik.

1.- Euskal gatazkaren irtenbidea ez da inoiz konfrontazio antidemokratikotik eta zilegi ez den biolentziaren erabileratik etorriko.

XXIgarren mendean, bai euskal gizartea eta bai munduko gainontzeko herritarrak bakearen aldeko kontzientziario gero eta sakonagoa uztartzen ari dira konponbide militar eta biolentziaz alde batera utzirik, jarra hauek ez baitute bakebidean aportazio positiborik ezkeintzen, justu guztiz kontra-koa. Horren adibide garbia da oraindik indarrean dagoen Irakeko gerra; Biolentziak biolentzia gehiago sortu eta herritarren sufrimendua areagotu baino ez du egiten.

Beraz guk, Euzko Gaztedik, beti egin dugun bezela baina orain inoiz baino gehiago, biolentziaren arrazoiaren aurrean, hitzaren eta elkarrizketaren arrazoiak aldarrikatzen dugu.

2.- Gatazka politikoen konponketa ez da erraza. Kanpoko eragozpenak, barruko tentazio okerrak norbereburua irabazle handizat aurkezteko eta beste mila oztopok, mendeetako arazo politikoari eta bake ezari konponbidea lortzeko bidea kolokan jartzen dute askotan. Egoera honetan, guztiok daukagu bideari jarraipena eman ez izanaren erantzunkisunaren zati bat, baina ETAK eta ETAK bakarrik dauka ozto-

poi aurre egin eta konponbideak bilatzen jarraitu beharrean, kokildu eta bidean atzera egitearen erantzunkizuna orainarte lortutako aurrerapausu guztiak kolokan jarritz.

Ondorioz, oztopen aurrean ausardia aldarrikatu nahi dugu eta erabat gaitzetsi bidean atzera bueltatzearen estrategia kol-darrak.



3.- Gure babes osoa eskeini nahi diegu inoiz biolentziaren biktima izan diren pertsona guztiei, berriz ere traizionatua sentitu den euskal gizarte osoari, engainatuak sentitu diren ezker abertzaleko kideei eta batez ere, egiari eta duintasunari traizio eginez ETAK prosesuaren porrotaren erantzule bezela jarri dituen gure alderdiko, Euzko Alderdi Jeltzaleko, burukide guztiei.

EAJeko kideek askatasunez eta demokratikoki Euzkadiko herrialde guztietan aukeratu dituzten burukideak, beti defendatu dituzte askatasuna eta nazio eraikuntza 112 urte dituen alderdiaren buruzagitzan eta tinko eta irmo matentu dituzte bai bakarkako eskubide eta eskubide kolektiboaren baloreak eta baita arazoaren aurrean ausardiario eta konpobiderako jarreraren balio ukaezina. Guzti hau ez aitortzea eta lepotik, bake prosesuaren porrota intentzioz bilatu izanaren akusazio larria egitea, historiari, errealtateari eta egiari iruzur egitea da.

[www.bizkaikoEGI.org](http://www.bizkaikoEGI.org)

**gaur ekainak 5...**

Beraz, puntu honetan aipaturiko guztiei babes eta esker ona berrestea baino ez zaigu gelditzen egin dituzten eta egiten jarraituko dituzten ahalegin zintzoengatik.

4.- Azkenik, ETAr zintzotasunez eskaera bat

egin nahi diogu. Su etena haustean izan ez duen ausardia berreskura dezala eta gure herria eta gure gizartea behin betiko bake bidean eta gatazkaren konponketa bidean jar ditzala behin betiko egiazko su etena

**ESPERANZA**

Unos dicen que fue en 1960, otros que en 1968. En cualquier caso mucho tiempo, demasiado. De hecho, cada día es un día de más, una eternidad innecesaria.

Todos nosotros, todos los EGIkides y muchos de los que ya no lo son, toda la juventud vasca, hemos nacido y crecido al mismo tiempo que ETA sembraba su terror y ejercía, casi con sadismo, su crueldad injustificable. Hemos crecido viendo en la tele los cortes informativos para anunciar un nuevo tiro en la nuca, una bomba o un macabro secuestro. En ocasiones incluso no ha tocado muy de cerca; hemos oído las bombas o hemos tenido que buscar otro camino para volver a casa. Hemos crecido viendo titulares de muerte y destrucción; escándalos de terrorismo de estado y de torturas. Hemos crecido viendo, o viviendo, violentas manifestaciones en las calles de nuestras ciudades o pueblos, y hemos tenido que callar y salir corriendo. Hemos vivido también las primeras grandes manifestaciones de apoyo a las víctimas. Hemos oído de procesos de paz, de diálogos, y también de cómo se rompían o acababan, una vez tras otra, sin ningún avance, sin resultados, pero siempre hemos creído en que merece la pena volver a intentarlo.

Una vez más, una oportunidad fallida. Una puerta cerrada. Sí, lo cierto es que se cerró

hace 6 meses, pero ahora le han echado el pestillo. Los otros tienen la culpa, nadie acepta la responsabilidad. Pero solo unos llevan toda nuestra vida, y antes de que nacieramos, asesinando, atemorizando y amenazando. ETA puso la bomba hace seis meses, cerrando la puerta, ETA ha amenazado ahora con volver a atentar ahora, echando el pestillo.


Como llamaron a otros "niños de la guerra", podrían llamarnos a nosotros "niños del terrorismo". O mejor, sin duda, "niños de la esperanza"; esperanza en que algún día algún proceso dará sus frutos; esperanza en que algún día, más pronto que tarde, habrá paz en la tierra de los vascos, en Euzkadi; esperanza en que se resolverá un conflicto que lleva sacudiendo a nuestro pueblo tantos años, tantas generaciones: esperanza en la libertad; esperanza en que todo eso llegue antes de que otra generación de EGIkides ocupe nuestro lugar. ETA EZ! GORA EUZKADI ASKATUTA!

**AGENDA- info@bizkaikoegi.org**

**EKAINAK 20**  
**EUSKAL Y HITZALDIA**  
**19.00**  
**BILBON**

**EKAINAK 25,26 eta 27**  
**ELIKAGAIEN MANIPULAZIO**  
**IKASTAROA**  
**BILBON**  
**9.00-13.00**

*Euskal gizarteak ez du nahi eta ez du merezi mendeetan itxaroten ari den eta orain urtebete esperantzaz hartu zuen konponbide bidean berriz ere atzera egiterik.*

**EUSKAL JAI PLENTZIAN**

Uribe Kosta eskualdean Gogorregi Konpartsak Euskal Jaia antolatu dau, arrakastatsua izan dan Euskal Jai honen lehenengo edizino hau ez da Gogorregik antolatuko dauan azkena. Goizean, nekazal azokan bertoko produktuak dastatu eta erosi ahal izan genduzan eta nahiz eta euriak lar lagundu ez baeban be jende ugari hurbildu zan. Ondoren txistuaren doinuek alaituta euskal dantzak ikusteko aukera izan genduan, hau bai dantzari harrobi bikaina!!! Herri bazkarian giro aparta bizi izan gendun, kantuak, trikitixa, mus txapelketa... barre zantzoka ibili ginen han batu ginen ehun lagun inguruk!!!

Eguneko giroa ikusteko eta zozketan saridun atara ziren zenbakiak ezagutzeko, bisita egizue [www.gogorregi.org](http://www.gogorregi.org) web orrialdea, han eukiko dozue honen barri gehiago.

**NOR ZEN? ... JOSE MARI AZKARRAGA**

**Jose Mari Azkarraga Mozo "Lurgorri"** (Errenteria, 1916 - Derio, 1937) euskal politikaria izan zen. Lurgorri Ikasle Elkartearen izena bere omenez hautatu egin zen.

Gipuzkoarra zen jaiotzez, errenteriarra, 1916ko urriaren 29an munduratu zelarik. Gurasoak, Jose Maria eta Juana zituen, Agurain eta Errenteriakoak. Aitaren lan profesionala zela eta Bilboko Hezkuntza Institutuko idazkari izendatu zuen 1916an Madrileko Instrukzioko Ministerioak-Bizkaiko hiriburura aldatu zen sendia, eta han egin zituen Jose Marik lehen ikasketak, 1929ra arte. Urte hartan Ministerioak berriro deitu zuen "Lurgorri"-ren aita Madrilerara eta gurasoak eta lau seme alabak hara joan ziren bizitzera.

Jose Mari Azkarragak Zuzenbideko Fakultatean ekin zien goi ikasketei 1930ean. Ordurako bere gogoia zeharo maitemindua zegoen euskal sentimenduz. Gurasoak abertzale eta euskaltzaleak zituen eta iturri horretatik edan zuen Jose Marik bere bizitza osoan. Aita, hogeita bat urterekin Agurainetik Madrilerara lanera joan zena, espainiar hiriburuan



euskaltzaletu zen, bertako Ateneon euskarazko klaseak hartu zituelarik. Lagun handiak izan zituen Odon eta Angel Apraiz gasteiztarak, Abdon Gonzalez de Alaiza musituarra, Zelestino Agirresarobe tenore zarauztarra, Inazio Busca Sagastizabal musika konposagile zumarragatarra eta beste hainbat, eta Jose Mari seme gazteak ere giro hartaz kutsatu zen.

Madrilen ikasten ari zela Euzko Ikasle Batzan afiliatu zen eta 1933an lehendakari izendatu zuten. Madrileko ikasle euskaldunen topagunea bilakarako zuen elkarte hartan buru belarri aritu zen Azkarraga, euskal unibertsitatearen aldarrikapen jarraikian. Eta iritziko artikulak argitaratzeari ekin zion, garaiko aldizkari eta egunkarietan, "Lur-Gorri" izengoitiarekin izenpetuta.

Bere luma arin eta konprometituak berehala erakarri zion gazteari, politikagintza zein sindikalgintzako sektoreen arreta. Eta, ondorioz, indar berrizatuaz ihardun zuen Euzkadiko askatasun demokratikoen alde, Madriletik eta, noski, baita Euskal Herritik bertatik ere, Aramaio bilakatu zuelarik horretarako txokia egokia



*Como llamaron a otros "niños de la guerra", podrían llamarnos a nosotros "niños del terrorismo". O mejor, sin duda, "niños de la esperanza"; esperanza en que algún día algún proceso dará sus frutos; esperanza en que algún día, más pronto que tarde, habrá paz en la tierra de los vascos*